Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko uztailaren 1a, astelehena — 124 — Lunes, a 1 de julio de 2019

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## USURBILGO UDALA

*Zinegotzi delegatuen izendapena*

2019ko ekainaren 20ko 2019/575 zenbakidun Alkatetzaren Ebazpen bidez Toki-Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.3 eta 23.4 artikuluek eta Udal Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoa arautzen dituen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 43.3 artikuluak ematen dizkidaten ahalmenak erabiliz, aipaturiko Erregelamenduko 114 eta hurrengo artikuluetan xedaturikoaren arabera, ondorengo erabakiak hartu dira:

*Lehenik.* Tokiko Gobernu Batzarreko kide eta bigarren alkateordea den Lur Etxeberria Gurrutxaga zinegotziaren esku uztea bere jarduera eremua Ogasunari dagokionean zuzendu eta kudeatzeko eskurantza orokorra. Hauexek dira, zehazkiago esanda, eskuordetze orokor honetan haren esku utzitako eskurantzak:

— Delegazioaren ordezkaritza eremuan, alkatea eta Udala ordezkatzea, alkatea ez dagoenean.

— Delegazioaren ordezkaritza eremuan, Udalbatzarraren Osoko bilkuraren eta Tokiko Gobernu Batzarraren eguneko aztergai-zerrendetan sartzeko gaiak alkateari proposatzea.

— Bere ordezkaritza eremuaren barne, ordenantzak, erregelamenduak eta udal akordioak argitaratu, bete eta bete daitezen agintzea.

— Bere eskuordetzearen arloan beharrezkoak diren ebazpenezko nahiz izapidezko administrazio egintzak diktatzea, beste organoren bati ez badagozkio.

— Dagokion eremuaren egituraketa eta antolaketaren proposamena egitea alkateari.

— Zerbitzuen ohiko funtzionamenduak eragindako gastuak onartzea eta baimentzea delegazio eremuari atxikitakoak direnean, beti ere honako irizpideak kontutan harturik:

* Edozein iniziatiba hartu ahal izateko, aurrekontuetan behar adinako zuzkidura izan behar du.

* Aurrekontuaren errekurtso arruntetik % 5a gainditzen ez dutenean.

* Erabakitako gastuaz informatua izango du alkatea.

— Bere eremuko gaietan era guztietako diru-laguntzak eskatzea.

— Dagokion eremuko Aurrekontuen aurreproiektua garaiz prestatzea, finkaturiko epeetan Udalak onartu ahal ditzan.

— Eskuordetutako eremuari loturiko baliabide fisiko eta giza baliabide guztiak sustatu, koordinatu eta kontrolatzea, udal helburuak hobeto bete ahal izateko.

— Udalaren izenean zerbitzuak eta, bere kasuan, hornidurak zuzendu, sustatu eta ikuskatzea, eskuordetutako jarduera esparruaren barnean erabaki direnean.

— Dirulaguntzak eta zerbitzuak ematea, dagokion arloan.

— Bere lan eremuaren barne sortzen diren gai arrunt eta tramitezko guztiak kudeatzea, erabakiak hartuz.

## AYUNTAMIENTO DE USURBIL

*Nombramiento de concejales delegados*

Mediante resolución de alcaldía número 2019/575 de 20 de junio de 2019, en uso de las facultadas otorgadas por los artículos 21.3 y 23.4 de la Ley 7/1985, del 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, y por el artículo 43.3 del Real Decreto 2568/1986, del 28 de noviembre, sobre Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las entidades municipales, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 114 y siguientes del citado Reglamento se han adoptado los siguientes acuerdos:

*Primero.* Delegar la atribución general de dirección y gestión del área de Hacienda en Lur Etxeberria Gurrutxaga, miembro de la Comisión de Gobierno y 2.ª teniente de alcalde. Estas son las competencias que le han sido delegadas en esa atribución general:

— Representar al alcalde y al Ayuntamiento en el área objeto de delegación, en ausencia del alcalde.

— Proponer al alcalde los temas a incluir en el orden del día en los plenos municipales y en las reuniones de la Comisión de Gobierno, en el área objeto de delegación.

— Publicar, cumplir y hacer cumplir las ordenanzas, reglamentos y acuerdos municipales, dentro del ámbito de su delegación.

— Dictar los actos administrativos de resolución o tramitación que resulten necesarios dentro del ámbito de su delegación, siempre que no correspondan a otro órgano.

— Proponer al alcalde la estructuración y organización del ámbito de su delegación.

— Aprobar y autorizar los gastos generados por el funcionamiento normal de los servicios adscritos al ámbito de su delegación, de acuerdo con los siguientes criterios:

* Deberá disponer de suficiente dotación presupuestaria para adoptar cualquier iniciativa.

* No deberán superar el 5 % de los recursos normales del presupuesto.

* Deberá informar al alcalde sobre los gastos acordados.

— Solicitar todo tipo de subvenciones en los asuntos de su ámbito de actuación.

— Elaborar con la suficiente antelación los Presupuestos de su ámbito de actuación, con el fin de que el Ayuntamiento pueda aprobarlos en los plazos fijados.

— Impulsar, coordinar y controlar los recursos físicos y humanos adscritos a su ámbito de actuación, al objeto de un mejor cumplimiento de los objetivos municipales.

— Dirigir, promover e inspeccionar en nombre del Ayuntamiento los servicios y, en su caso, los suministros acordados en su ámbito de actuación.

— Conceder subvenciones y prestar servicios, en el ámbito de su competencia.

— Gestionar y resolver todos los asuntos ordinarios y de trámite surgidos en su ámbito de actuación.

EK\CV GAO-I-2019-04263

— Delegazio eremuari dagokionean aurrekontuaren errekurtso arruntetik % 5a gainditzen ez duten zerbitzu eta hornidUren kontratazioa, beti ere Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren jarraibideak errespetatuz.

*Bigarren.* Ogasun arloari dagokionean ondorengo eskurantzak ez dira eskuordetuak ulertuko eta, beraz, alkatearen esku geratzen direla ulertuko da: kreditu eragiketak hitzartzea eta faktura zerrendak onartzea.

*Hirugarren.* Tokiko Gobernu Batzarreko kide eta lehengo alkateordea den Beñat Larrañaga Urdanpilleta zinegotziaren esku uztea zigor-jardunbideari hasiera ematea udalaren eskumeneko edozein arlotan eta instrukzio organoa izendatzea, zigor-jardunbidea ebazteko organo eskuduna alkatea izango delarik.

*Laugarren.* Erabakitako delegazioen erregimen juridikoa honako hau izango da:

1. Alkateari dagokio zinegotzi delegatuen jarduera koordinatzea eta haien arteko eskumen arazoak ebaztea.

2. Ordezkaritzaren eremuaren barruan erabili behar dira emandako eskuduntzak eta bere titularrak ezingo ditu beste zinegotzi edo organoren esku utzi.

3. Zinegotzi delegatuak alkateari erabilitako eskuduntzen berri emango dio. Horrela, zinegotzi-delegatuen egitekoa izango da alkateari eskuordetuta daukaten eskumenaren kudeaketaren inguruko eta eskuordetzearen indarrez emandako egintza edo xedapenen inguruko informazio zehatza ematea.

4. Zinegotzi-delegatuek garrantzi bereziko erabakiak hartu aurretik alkateari horien berri eman behar diote.

5. Ordezkaritzak ez du epe mugarik, eta iraungo du ezeztatu arte, alkatetza honek bere agintaldia amaitu arte edo zinegotzi delegatuak espresuki bere karguari uko egin arte.

Alkatetza honek eskuduntza emate hau aldatu edota ezeztatu ahal izango du, hala irizten dionean. Alkateak eskuordetutako eskumena edozein unetan bereganatu ahal izango du, egokitzat hartzen duen zabaltasunez. Ekintza administratiboak ofizioz berrikusteko aurreikusitako moduan berrikusi ahal izango dira eskuordetutako agintariak emaniko ebazpenak.

6. Zinegotzi delegatuak bere eskumen eremuko gaietaz emandako ebazpen administratiboen testuan agertu behar da ebazpenak delegazioz emanak direla eta delegatu gabeko gaietaz emandako ebazpenen balio bera izango dute.

7. Zinegotzi delegatuak emaniko ekintzak berraztertzeko errekurtsoen bidez errekurritu ahal izango dira. Kasu guztietan, Alkate-Lehendakariak ebatziko ditu aipaturiko errekurtsoak.

8. Zinegotzi delegatua ez dagoenean, ordezkaritza eman gabe dagoenean, gaixorik dagoenean edo aritzeko beste edozein ezintasun duenean, alkatetza honek, eskuduntzen jatorrizko titularra den aldetik, bere gain hartuko ditu, zuzenean eta automatikoki, delegatutako eskuduntzak. Ondorio hauetarako, ulertu behar da eskuduntzak berreskuratzeko eskubidea erabili duela Alkatetza honek, Dekretu honetan oinarriturik, hartarako berariaz ebazpenik eman gabe.

*Bosgarren.* Dagokion zinegotziei Dekretu honen berri emango zaie, egoki iritziz gero, onar dezaten. Zinegotziek onartu dutela ulertuko da, dekretu hau jakinarazi eta hurrengo hiru eguneko epean ez badute ezer adierazten haren kontra.

*Seigarren.* Osoko Bilkurari dekretu honen berri emango zaio haren lehenengo bilkuran, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta Udaletxeko Iragarki Taulan jarriko da.

— Contratar servicios y suministros que no superen el 5 % de los recursos normales del presupuesto, en lo que respecta a su ámbito de delegación, respetando las normas establecidas en el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

*Segundo.* En lo que respecta al área de Hacienda, no se delegarán las siguientes competencias y, por lo tanto, se entenderá que quedan en manos del alcalde: Concertar operaciones de crédito y aprobar relaciones de facturas.

*Tercero.* Delegar en el concejal Beñat Larrañaga Urdanpilleta, miembro de la Comisión de Gobierno y 1.º teniente de alcalde, el inicio de los procedimientos sancionadores en cualquier ámbito de competencia municipal y el nombramiento del órgano de instrucción, siendo el alcalde el órgano competente para la resolución del procedimiento sancionador.

*Cuarto.* El régimen jurídico de las delegaciones será el siguiente:

1. Corresponde al alcalde coordinar la actuación de los concejales delegados y resolver los conflictos competenciales que puedan surgir entre ellos.

2. El titular de las competencias delegadas deberá hacer uso de ellas dentro del ámbito de su delegación, y no podrá a su vez delegarlas en otros concejales u órganos.

3. El concejal delegado informará al alcalde sobre las competencias utilizadas. Los concejales delegados deberán ofrecer al alcalde información detallada sobre la gestión de las competencias que tienen delegadas, así como de los actos y disposiciones dictadas en virtud de la delegación.

4. Los concejales delegados deberán informar al alcalde antes de adoptar cualquier acuerdo de especial importancia.

5. La delegación será por tiempo indefinido y permanecerá vigente hasta que sea revocada, finalice el mandato de esta Alcaldía o el concejal delegado renuncie expresamente al cargo.

Esta Alcaldía podrá modificar o revocar esta delegación de competencias cuando lo estime oportuno. El Alcalde podrá recuperar las competencias delegadas en cualquier momento y con el alcance que estime oportuno. Las resoluciones dictadas por la autoridad en quien recae la delegación podrán ser objeto de revisión por el sistema de revisión de oficio previsto para los actos administrativos.

6. En el texto de toda resolución administrativa dictada por el concejal delegado en el ámbito competencial de la delegación, deberá hacerse constar que la resolución es adoptada por delegación; no obstante, tales resoluciones tendrán el mismo valor que las dictadas sobre asuntos no delegados.

7. Los actos dictados por el concejal delegado podrán ser objeto de recurso mediante el correspondiente recurso de reposición. En todos los casos, dichos recursos serán resueltos por el alcalde-presidente.

8. En ausencia, en cuestiones de delegación no otorgada, por enfermedad o por cualquier tipo de impedimento del concejal delegado, la Alcaldía recuperará directa y automáticamente las competencias delegadas, como titular natural de las mismas. A esos efectos, se entenderá que la alcaldía ha hecho uso del derecho de recuperación de las competencias, basándose en este decreto, y sin dictar resolución expresa para ello.

*Quinto.* Dar cuenta de este Decreto a los concejales afectados, al objeto de que lo acepten si lo estiman oportuno. Se entenderá que los concejales aceptan la delegación, si en el plazo de tres días desde la notificación de este decreto no manifiestan nada en su contra.

*Sexto.* Dar cuenta de este decreto al Pleno en la próxima sesión que celebre, y publicar el mismo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el Tablón de anuncios municipal.

EK\CV GAO-I-2019-04263

*Zazpigarren.* Dekretu hau Alkatetzaren Ebazpenen eta Dekretuen Liburuan transkribatuko da eta indarrean sartuko da bosgarren atalean xedaturiko epean.

Usurbil, 2019ko ekainaren 25a.—Agurtzane Solaberrieta Mesa, alkatea. (4263)

*Séptimo.* Este decreto será transcrito en el Libro de Resoluciones y Decretos de Alcaldía y entrará en vigor en el plazo señalado en al artículo quinto.

Usurbil, a 25 de junio de 2019.—La alcaldesa, Agurtzane Solaberrieta Mesa. (4263)